

ON MARIO ICETA

On Mario Iceta, berrogeita hiru urtekin aukeratua izan zan Bilboko Gotzain laguntzaile. Orduan jakin neban, medikuntzan eta teologian, doktoretza-ikasketak egindako gernikarra zala. Baita ekonomian master titulujabea zala ere. Handik bi urtera, Bilboko Eleizbarrutiko Gotzain titular bihurtuko da. Eta berrogeita hamabost urtekin, 2020. urriaren seian, Burgosko Gotzainburu izentatuko dau Frantzisko Aita Santuak.

Bilbora Gotzain laguntzaile bezela etorri zanean, edade eta osasunagatik laga neban Larreako parroko izatea. Horregaitik, nik neuk ia ez dot euki beragaz halako hartu-emon esatekorik. Burgosera joan danetik, Jose Francisco Serranok egin eutson alkarrizketa interesgarriari esker, hobeto ezagutzen dot gaur egun beraren bizitza eta pentsamendua. Berari buruzko hainbat gauza eder jaso ditut. Baita, handik eta hemendik jasotako aurreiritzi banaka batzuk uxatu ere.

Liburu hau, “Servidor de todos” (Palabra, Madrid, 2020), irakurri ondoren, argi daukat, On Mario gizon jainkozalea, humanista eta zientzietako gizona dogula. Pena sentitzen dot holako Gotzain bat hemendik aldatzeaz. Bilboko Eleizbarrutiak galdu dauana, Burgosko Eleizbarrutiak irabazten dau! Jendeak nahi baditu ezagutu On Marioren bizitza eta pentsamendua, aipatutako alkarrizketa hori, irakurtzea baino ez dauka. Horrela, Bilboko Eleizbarrutian, hasiera-hasie-

ratik, bere kontra sortutako esamesak ez dabe lekurik izango hemendik aurrera.

Nire helburua ez da, ba, alkarrizketa-liburu honen laburpenik emotea. Bai, ostera, alkarrizketa bizi-bizi hau irakurtzera konbidatzea. Beti ere erantzun jatorrak eta zentzunezkoak diralako. Bai teologia aldetik eta bai zientzia aldetik.

Horretarako, lehenbizi, liburu horretan datozen itaun orokorragoen zerrenda aipatzea izango da. Eta ondoren, On Mariori egindako bizpahiru itaun pertsonalagoen bizipena aurkeztea.

Itaun orokorrak

Jose Francisko Serrano kazetariaren galdera gehienak lar arruntak dira, gure arteko kulturaren. Beti ere, itaunak egitea errazagoa da, erantzutea baino. Kasu honetan, nahiz eta galdera arruntak izan, hainbat erantzun eder sortu ditue. Hona hemen, kazetariaren galdera orokorren zerrenda: “Euskadiko eta Espainiako gizartearen sekularizazioa”. “Familia- bizimolde desberdinak”. “Ezkontzaren krisiak”. “Homosexualen ezkontza”. “Genero ideologia”. “Transhumanismoa”. “68ko Maiatzaren iraultzaren ondorioak”. “Andrazkoen aurkako bortizkeria”. “Abortua”. “Eutanasia”. “Pertsonen eugenesia”. “Kobid 19-Pandemiaren ondorioak”. “Jaungoikoa eta gaizkia”, “Pederastiaren arazoa”. “Krisi demografikoa”. “Immigrazio arazoa”. “Pobretasun barriak”. “Nazionalimoak eta populismoak”. “Eleiza eta politika”. “ETAren biktimak eta Eukadiko Eleizaren jokabidea”. 1978. Konstituzioaren iraunaldia”. “Fedearen inkulturazioa”. “Emakumeen abadetza”. “Abadetza eta ezkongabetasuna”. “Erromako kuriaren erreforma”. “Eleizaren doktrina soziala”. “Gizarte kontsumista”. “Eleiza erasotua”. “Eleizaren protestantismo prozesua”. “Pray Station pastoralgintzan”.

Itaun pertsonalagoak

Esker oneko fededuna

“Umetatik persona jainkozalea izan naz, inongo karranka barik. Domekero joaten nintzan mezara. Ez nengoan sartuta ez parrokiako, ez beste erako taldetan. Beti izan naz oso musikazalea. Nire amak piano karrera amaituta eukan. Nire etxean beti euki dogu piano bat eta, beraz, ikasi nebazan solfeo eta pianoa jotan. Gazterik amaitu nebazan Kontserbatorioan solfeo ikasketak, harmonia eta kantu korala. Baita pianoa jotan ere laugarren ikasturteraino.

Lekarozko Ikastetxean, Aita Donostia, konpositore kaputxi-no ospetsuaren organoa egoan. Han irakatsi eustien organoa jotan. Asteburuetan Lekaroztik etxera bihurtzen ginan anaia eta biok. Horrela, herriko lagunekin domeketako mezan hartzen genduan parte eta neuk jotan neban organoa. Baita Lekarozen ezagutu neban Aita Patxi Ondarra euskaltzain osoa ere. Beti animatzen ninduan bizkaiera ondo ikastera, euskalki aberatsena zala-eta. Baina orduan han euskera ez zan eskolatze-curriculumean sartzen. Halan ere, eskolako ordutik kanpo, irakasten euskun euskera ganoraz. Baita, umetan, Gernikako mojetan, Aita Felix Foruko frantziskotarrak ere, Kili-Kili metodoa erabiliz, irakasten euskun euskera.

Inoiz ere ez da izan niretzat kristau-fedea txaplasta edo enplastu bat. Kristau mundu-ikuskeran murgilduta bizi eta hazi naz, kristau-familia baten jai, ikastetxe katoliko baten ikasi, gaztetatik adiskide fededunak izan ditut eta orain ere, gitxi gorabehera, praktikanteak diranak...

Fedea eta arrazoiaren, zientzia eta fedearen arteko diatribak agertzen diranean, askotan lar agorrek eta partzialak, ezustean harrিতuta izten nabe. Oztopo izan beharrean, fedea argitzen dauan fokoa da eta ikuspegi erabat orokorra emoten dau. Dana argitzen dau. Dana beteten itxaropenaz, eta argiaz

eta bizi-az. Ez dot inondik inora benetako kontraktasunik aurkitzen fedearen eta zientziaren artean”.

“Kristau bidean, oinarrizkoena, ez da hau edo hori egin beharra. Lehenengo pausoa da Kristo Jesus esker onez onartzea. Ez daukagu hartu bako ezer. Sortu eta gero jai-oz nazanetik, daukadan guztia hartutakoa dot. Emon izan jat bizi-az, emon izan jat familia bat, emon izan jat bizi-nazan tokia, nire lagunak, ikasten egon nazan ikastetxeak, Eleizaren sakramentuak, Jaungoikoaren Berbea. Dan-dana emon izan jat. Kristo Jesus onartzea da bokazio guztien zimentarria. Bera da kristau-bidearen bidea, kristau-argiaren argia, kristau-arnasaren arnasa, kristau-biziaren bizi-az. Kristo Jesus da bokazio guztien zimentarria”.

Abadetzarako deia

Nafarroako Unibertsitatean nengoan medikuntza ikasketak egiten. Hiru ikasle bizi-ginan pisu baten. Bata bilbotarra, Fernando, gaur ere lagun mina dodana, neuropsikiatria ikasten, eta bestea Juan Carlos, kordobarra, zuzenbide zibila egiten. Hauxe izango da abadetzarako gehien lagunduko eustan ikas-kidea. Ikasketa intentsiboak geunkazan. Goizean goizetik klinikara joaten ginan praktikak egitera. ordubeteko klasea eta gero beste lau ordu segidan klaseak. Egun osoa ikasten ari-ginan. Baita asteburuetan ere.

Baneukan neska lagun bat ere. Nire asmoa, ezkondu, familia bat sortu eta traumatologo lez lan egitea zan. Baina lau-garren kurtsoan, bihotz barnean halako kezka sentitzen ne-bazan. Zerbait berezia zan artetatzen ninduana. Ikusten ne-bazan Unibertsitatean abadegai gazteak teologia ikasten. Hortik biztu jatazan abade izateko lehenengo txinpartak. Makina bat buelta emon neutsan buruari. Hoge-i kilo galtzeraino heldu nintzan...

Gau baten, irakurtzen nengoala, Juan Carlos etorri jatan eta dinost bat-batean: ‘Zu, Mario, aspaldion, oso arraro ikusten zaitut, gehiegi argalduz zoaz... Zer gertatzen jatzu?’. Nik ez neutsan inori ezer esan. Neure kasa buruari bueltaka nenbilen. Animaturik erantzun neutsan: esaten badeutsut, ez deustazu sinistuko. Abade izateko bokazioa ete daukadan darabilt buruanl... Gogoratzen naz, zelan barru-barrutik urten eutsan: ‘Zur eta lur izten nozu... Bihar egingo dogu berba’. Eta urten eban nire gelatik.

Biharamunean, armosutan, beste biak, goitik behera begiratzten eusten, ez dakit zer banintz bezala. Eta, une baten, Juan Carlosek dinost: ‘Nik eta nire neska lagunak, biok, noi-zean behin, Unibertsitateko abade bategaz egiten dogu berba, nahi dozu gonbidatzea kafe bat hartzera?’. Ondo, deitu eiozu, erantzun neutsan. Eta etorri zan. Logroño-ko abade bat zan. Klaseak emoten ebazan Unibertsitatean. Beraren izena, Fernando. Kontatu neutsan neukan arazoa... Abadeak dinost: ‘Hasiko gara egunero bitartetxo baten otoi-ze egiten. Errezatzen dozu?’. Ez asko!. ‘Orduan, aukeratu eguneroko ebanjelio zatia, hartu koadernotxo bat alboan, egizu otoi-ze Ebanjelioagaz hamabost minutu inguru. Idatzi inpresio deigarrienak edo ulertzen ez dozuzan gauzak edo bihotz barnean sortzen jatzuzan pozaldiak, dudak, penak, eta hurrengoan egingo dogu berba’. Eta horrela zintzo hasi nintzan otoi-ze egiten. Ordura arte, ez neban horrela otoi-ze egiten. Hamabostero alkartzen nintzan abadeagaz. Halan da ere, nire barneko esturasunak eta kez- kak, ez ziran argitzen...

Egun baten, Fernando abadeak dinost: ‘Gogoeta bakarraldi bat egin behar dozu’. Eta Zumarragara joan nintzan. Eguenetik domekara arte. Nire itaun bakarra hauxe zan: Zer nahi dozu, Jauna, nigandik? Eguenean ez neban ezer ere ikusi. Barikuan ere, ezerez. Zapatuan, ezerez. Ezta domeka eguerdian ere. Arratsaldeko lauretan, amaitzen neban gogoeta-bakarraldia. Erretiroa amaitu baino ordubete lehenago, gogojarduneko kaperara joan nintzan. Eta honela egin neuntsan

otoitz Jaunari: Erretiro honetara etorri naz nire abadetzarako deia argi ikusteko eta ezin naz hemendik joan arazo hau erabaki barik. Nik ez dot bilatu abade izatea... Baten batek ipini behar izan deust neure barnean gogo bizi hau. Ez naz ni izan, Zeu izan zara deitu deustazuna. Ondo baino hobeto ezagutzen nozu. Abadeak falta dira eta asko, gainera. Beno Jauna, hemen naukazu. 1988. urtean, martxoaren 13an, jakinaren gainean eta askatasunez emoten deustut baietza. Izan bedi Zeuk nahi dozuna. Onartu eta gidatu nagizu, Jauna.

Baietza emon ondoren Jaunari, berehalaxe, bihotz barnean bakea eta poztasun itzela sortu jatazan. Hemen naukazu, Jauna!. Harrezkero, horixe izan da beti, nire jarrera Jaunaren aurrean: ez eskatu ezer niretzat, eskatzen deusten ezer ez gaitzetsi. Eskatu deustenean toki batera joatea, gustukoa izan edo ez izan, joan naz. Eskatu deustenean ikastera joatea, joan naz. Herritxo batera joatea agindu eustenean, joan naz. Elizbarrutiko bikario nagusi eta kalonje izendatu ninduenean, onartu neban. Ekarrri ninduenean Bilbora gotzain laguntzaile lez, etorri nintzan. Bilboko gotzain titular izendatu ninduenean, onartu neban. Bihar edo etzi agintzen badeuste joan hara, joango naz. Edo geratu bertan erretiratu arte, hemen geratuko naz. Eta beti Jaungoikoagan fidatuz. Ez ezer gaitzetsi, ez ezer eskatu eta danen zerbitzari izaten lehiatu”.

Batzuengandik hartutako eragina

“Lehenik aipatu behar ditut Gernikako Mesedetako mojak. Bertan egin neban zazpi urtekin Lehenengo Jaunartzea ere. Hamaika urtetik COU egin arte, Lekarozen, frantziskotar kaputxinoen espiritualitateak ekarpen ederra laga eustan barruan. Hainbat urtez misiolari egondako lekaideak bizi ziran bertan. Eurogandik sortu jatan misiolari zaletasuna. Hantxe ezagutu neban, gero, Amazonian Gotzain zala, martiritza jasango eban Aita Labaca ere. Sarritan egiten euskuzan hitzaldiak...

Nafarroako Unibertsitatean zortzi urtean egon nintzan medikuntza eta doktoretzako ikasketak egiten. San Jose Maria Balaguerren espiritualitatea bere idaztien bidez ondo ezagutu izan dot. Halan ere, ez naz inoiz izan Opusko kidea. Gogoko jat San Jose Mariak sarritan azpimarratzen dauan aholkua, bakotxak bere lanbidean bilatu behar dau santutasuna.

Batez ere, San Joan Paulo II.a izango da nire haurtzaro eta gaztealdiko Aita Santua. Berak antolatutako gazte jardunaldi gehienetan hartu izan dot zuzenean parte. Erroman, bost urtean ikasten egon nintzanean, oso gertu bizi izan nebazan beraren bizitza eta beraren aparteko mezua. Gitxiago ezagutzen ditut, Joan XXIII.a eta Paulo VI.a Aita Santuak. Hori holan izan arren, euron Entziklikak irakurri ditut. Benedikto XVI.aren liburuak liluratuta izten nabe. Zelako argitasunaz, zelako sakontasunaz, argitzen dituan nire bizitza eta nire apostolutza. Eta orain Frantzisko Aita Santuaren Entziklikak eta dokumentuak eta hitzaldiak gidatzen dabe nire bide. Ze ederto eta ze argi eta zelako erraztasunaz aurkezten dituan gaurko gizartearen eta Eleizaren gorabeherak eta problemak eta etorkizuna.

Beste batzuen eragina ere handia izan da nigan. Hor Santa Teresa Avilakoaren eta Edith Steinen eragina. Honek hunkituta izten nau. Eta zelan ez, San Ignazio Loiolakoaren eragina. Urtero, bere metodoa erabiliz, egiten ditut gogojardunak. Gogoko ditut Henri de Lubac, Hans Urs von Balthasar, Romano Guardini teologo eta pentsalari handiak. Baina gehien azertu dodazanak San Agustin eta Tomas Aquino dira. Beroni buruz egin neban Erroman teologiako doktoretza-tesia ere. Baita saiatzen naz irakurtzen Eliz Gurasoen obrak ere. Euron liburuen bilduma etxean daukat. Kordobako Seminarioan neukan gogo-arimako zuzendariari deusat zor San Joan Avilakoaren idazti ederrak irakurtzeko zaletasuna”.

Hobbyak

“Nire hobby nagusia musika da. Badot etxean teklatu bat. Klasikoen artean atsegin jataz Debussy, Fauré, Duruple, Ravel, Saint Sansens. Organista lez askotan jo izan ditut, besteak beste, Sebastian Bachen obrak, baita Cesar Franken eta Mozartenenak ere. Oso gogoko dot organoan eta pianoan bat-batean inprobiatzea. Neure Meza barrirako, Sanctus bat ere konposatu neban.

Musika modernoari dagokionez, nire gaztaroko, 80. Hamarkadako, musikari berezienak honeek dira: Pink Flody, Supetramp, Queen, Dire Straits, Snow Patrol, Joe Cocker, Eric Clapton, Men at work...

Gaztetan, EB2 – CHH Irrati afizionatua izan nintzan, baita Gurutze Gorriaren eta DYAren borondatezko kidea ere. Makina bat kilometro egin nebazan gaixo eta zaurituen zerbitzuan!

Telebistak aspertu egiten nau. Gabaz, atsegin jat nobela historikoak eta polizia-nobelak irakurtzea, eguneroko arazoez deskonektatzeko.

Ez naz kirol zalea. Lekarozen, ikasten nengoala, ia pare bat ordu kirola egitera behartzen ginduezan egunero. Gustatu ala ez gustatu, derrigoezkoa zan kirola egitea. Egun baten futbola, bestean saskibaloia, hurrengoan eskubaloia, eta azkeneko bi egunetan boleibol eta pilotan jokatzerara. Nire kirola beti izan da itsasoan igeri egitea. Baita gaztetan bizikletan eta motorrean korritzea ere. Orain oinez ibili eta udan itsasoan igeri egin eta nire anaiaren motorragaz gaztetako ikas lagunekin ateraldi batzuetan jarduten dot”.

Abadetzako ebaluaketa

J. F. Serrano kazetariaren azkeneko itauna On Mariori egin-dakoa hauxe izan zan: “Abadegintzan 25 urte bete ondoren, zelako ebaluaketa egingo zenduke?”

On Mariok lau goiburu honeekin laburbiltzen dau bere erantzuna:

“Apaiztu ninduenean, goiburu hau aukeratu neban: ‘Ez nozue zuek aukeratu nii. Neuk aukeratu zaituet zuek. Zuek nire adiskide zarie’ (Jn 15, 15-16).

“Gotzain izentatu ninduenean, ‘Danen zerbitzari’ izatea izango da nire goiburua.

“Abadetzako zilarrezko ezteguetarako”, bi goiburu aukeratzten ditut, bata, San Joan Gurutzekorena: ‘Maitasunez dabilen arimak ez dau nekatzen eta bera ere ez da nekatzen’, eta bestea, Santa Teresa Avilakoarena: ‘Honezkero, bidean jartzeko sasoa da’.

Horrexeek dira nire abadetzako erreferentziak eta argibideak”.

Alkarrizketa honetan zehar, On Mariok emoten dituan erantzunak merezi dabe hausnartzea. Ez dira asko izango gurre inguruan, erantzunak hain zentzunez eta argi emoteko gai izango diranak.

“Tolle et lege” da nire aholkua.

A. Olea